

Bertsolaritza

Aurten, bertsolari txapelketaren hasieran, bertsolaritzari buruzko jardunaldiak eratu ditu Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak Euskaltzaindiko Jagon sailaren laguntzarekin. Jardunaldi horien helburua herri literaturaren mota berezi hau interesatzen zaien pertsonen ahelik informaziorik zabalena ematea da. Sei hitzaldi bertsolaritzaren historiari, teknikari, eskolaz, txapelketaz eta abar. Azken urteotan bertsolaritzaz hainbeste arduratu diren sei espezialistaren esku.

Iragan osteguneko hasi ziren eta helduden ostiralez bukatuko dira.

Auspoa liburutegiaren bidez hainbeste bertso liburu argitaratu dituen Antonio Zavala maiz arduratu da espezialitate honen historiari eta gai hau erabili zuten bere hitzaldian, Cuba-ko gerran edo Cuba-ko gerrari buruz egin ziren bertsoen berri emanez. Bertsolaritzak historiaren kronikaz eman duenaren adibide ederra. Foru eskubideak gaitze ondorenez lehen aldiz behartu ziren euskaldunak soldadutza zerbitzura Cuba-ko gerran. Bertsoz agertzen zaizkigu neskatza eta emaztegiaren despedida hungariarriak, eta Habanarantz irtezeko orduan, bertso tristerik aski egin zuten. Gerra hartan parte hartu zuten bertsolarienak, horien artean Mendaro Txiristaka, bere penak gordinko kantatuz, gose, bero, eritasun eta bere gerrerako zorriak arte, miseria-rik aski bazen han. Bertsolari ikasiek eta bertsolari gisa idazten zuten poeiek ere ez zeuden isil, hango gaitzak batzuk libelaren lepora bota nahirik eta besteak karlistenera. Hitzaldi atsegina izan zen lehenengo hau.

Bigarrena Juan Mari Lekuonaren esku-
kutik joan zen. Bere osaba Manuel izan zen bertsolaritzaren teknikak onduen ikertu zituen eta horri esker baliatu zen bertsolaritza ongi merezi zuten mailara jasotzeko. Juan Mari ordea, gaztetxotatik jarraitu ditu osabaren urratsak, eta bapateko bertsogintzaz aritu zen, gure mende hontan ezagutu diren aldiak mugatuz: **Literatura oral vasca** (1965), **Jendaurreko bertsolaritza** (1980) eta **Bertsolaritza I, Hitzaren kirol nazionala** (1991) deritza lanetan bere lehen partea oinarrituz. Bigarren partean neurkerari buruzko oharrikunak, gaien erabilkeraz eta hiztegi arazoaz mintzatu zen. Bertsolaria, bapatekoan zertaz eta zelan baliatzen den adieriaz, buruzko mekanika nola jarraitzen duen; neurketaz, gaien bilakaeraz, hizkuntza baliatzeaz eta abar. Itxuraz hain gai zailak diren teknikak nornahik erraz ulertzeko eran agertu zituen Juan Mari.

Gaur, iluntziko zazpi t'erdietan, Jose Mari Satrustegi mintzatuko zaigu, bertsolaritzaren memoriaz. Hau da, bertsolaria nola baliatzen den memoriarekin. Bertsolaritza zertan bereizten den kanta zaharretatik, usariozko bertsogintzan, egituraz eta esaldien erabilera, klaxe zaharrez baliatzeaz, ideen erabilera eta hauek herrian arkitzen duten iraupenez, historiari, kontatzaiz eta sineskeria zaharrik gordetzeaz.

Bihar, Jose Antonio Arana Martija ariketako zaigu, bertso doinuak bertsolaritzaren historiari zehar zer nolakoak izan diren adieriaz. Amezketarragandik hasi eta gure egunokarte erabili diren

doinu moten berri emango du, garai bakoitzeko eta bertsolaririk aipagarrien ahoetan nola izan diren adieriaz.

Osteguneko, ohi den ordu berean, Abel Muniategi bertsolari eskolaz edo joerak zer izan diren, lehen eta orain. Gipuzkoako eskola klasikoez ariketako luzeen, lehengoetan, Amezketarragandik Otañora arte eta orainagokoetan Txirriagandik Basarri eta Uztapide arte, joerak bereizituz. Ifarraldeko eskolaz, Etxahun zaharretik Oxobira arte eta oraingo Mattin eta Xalbador. Bizkaikoak, Berriatu-Ondarroa eta Muxikako Enbeitatzenetik oraingo Amurizara arte. Eskola berriak sortzeaz, bertso jartzailaz, kasetta eta diska ere bai.

Azkenik, helduden ostiralez, Jose Mari Aranaldek bertsolari txapelketari buruz. Lehenbizi, gerraurrekoak, etena eta berriak. Bertso neurketaz, ariketa moduz, bakoitzaren balioak neurtzeaz eta abar, txapelketetako epai-mahaiek nola jokatzen duten, baliapenez eta puntuaketa. Baita ere, epaimahaieko egiten diren kritika desberdinak ere aztertuko ditu entzuleen jakingarri. Bukatzeko, txapelketen etorkizunez zenbait ohar.

Hitzaldi guziki bildurik liburu bat osatzea merezi dute, zeren hitzak hitz hango gaitza haizera emanak, baina idatzia idatzirik gelditzen baita bihurtuak balagarri.

Juan SAN MARTIN

El pasado jueves comenzó en las salas de la Caja de Ahorros Provincial un ciclo de conferencias sobre bertsolarismo, en la que intervienen los especialistas más selec-

tos en temas que atañen a este género literario. Antonio Zavala, a quien tanto la historia del bertsolarismo, como debe la historia de la buena música, debe en su intervención una buena muestra de bertsolarismo como crónica de varias etapas de la historia con una muestra de versos de la guerra de Cuba. Juan María Lekuona, trató de las distintas etapas de la evolución en las técnicas de la improvisación, y de los recursos de los que se vale el bertsolari en la función dinámica de improvisación a la hora de improvisar. Hoy le corresponde a José María Satrustegi hablar sobre la memorización en el bertsolarismo, la tradición y la utilización de los bertsolaris como herencia oral y modos de permanencia en las ideas básicas. Mañana le corresponderá a José Antonio Arana hablar sobre las místicas utilizadas en el bertsolarismo a través de la historia. El próximo jueves, Abel Muniategi tratará sobre las escuelas y tendencias en el bertsolarismo, en el pasado y en el presente. Por último, Jose Maria Aranalde, que en su parte, Jose Maria Aranalde, que el viernes cerrará el ciclo de dichas conferencias, hará una descripción de los conceptos de bertsolaris, estudiando sus pros y contras, mostrando las fórmulas de valoración empleadas por los jurados, incluso con la admisión de una crítica interna como miembro del jurado.


Un ciclo de gran interés para quienes deseen introducirse en el conocimiento del bertsolarismo o para poder seguir con el mayor provecho el campeonato de Mañara el próximo domingo dará comienzo en Mañara correspondiente al presente año y que finalizará en San Sebastián el 19 de diciembre.

Bertsolari Txapelketako Doinuak (VI)


Bertso molde arruntei dagozkien doinuak ikusi ditugu orain arte, hots, zortziko txiki eta handiari eta hamarretxo txiki eta handiari. Baina bertsolaritzan badaude beste bertso moeta batzuk, neurri aldetik bereziak. Bertso molde berezi bakoitzak bere doinu berezia darama. Halako bertsoak ez dituzte bertsolariek erabiltzen binaka kantatzen dutenean eta halako bat entzuteko agurrak edo kartzelako gaiak entzun behar ditugu saioetan. Sarritan zortziko edo hamarretxo erabiltzen dute bertsolariek agurrak edo kartzelako gaiak jartzeko; baina bertsolari onak edo trebetasuna adierazi nahi dutenek, bertso molde bereziak baliatzen dira. Eta bertsolari onak izan ditugula aurtongo txapelketan zerak adierazten digu: hamabost doinu desberdinak erabili direla lehen fasean bertso bereziak kantatzeko.

Ezagutuena emango ditut gaur, gehien erabili direnak, noski. Eta biko eritmodunekin hasiko gara gaurkoz:


1. Doinu hau bederatziko puntuak bertsoa kantatzeko erabiltzen da. Fernando Amezketarrak (1760-1823) horretarako asmatu zuenetik, Azken Txapelketan ere erabili zen (A-141, 37) eta gogoan izan dezagun Xempelarek ere kantatu zuela "Betroiaren tratua"n eta Bilintzek ere doinu honekin kantatu zuela bere "Zaldi baten bizitza". Aurtongo Txapelketan Peñagarrikanok eta Santurtzik kantatu zuten doinu hau Lesakan kartzelako gaiak jartzeko:



2. Hain ezagutua den "Uso zuria" abestia kantatzen dute bertsolariek brotsu molde berezi bat jartzeko. Sei lerro dituzte bertso honek bigarrena eta hirugarrena, eta zazpigarrena eta zortzigarrena berdinak baitira; baina texto aldetik lerro horiek berdinak izan arren, doinurako pentagrama desberdinak kantatzen dira eta zortzi pentagramadun doinu dela esan genezake. "Bertsotan" liburuan agertzen da doinu hau (B, 127) eta azken Txapelketan ere kantatu zen doinu da (A-141, 14). Aurtongo Txapelketan agurrak kantatzeko erabili zuten Altunak Tolosan, Aurrek Markinan. Aretioik eta Lizasok Hendaian eta Olaldek Zornotzan, eta kartzela gaia kantatzeko Mendizabalek Zornotzan:




3. Bederatziko lerroden bertsoa eta zazpi puntu dituna da "Aizak hil mutil Mairontzi" kantatzeko erabiltzen den airea. "Bertsotan" liburuan azaltzen da (B, 102) eta zailtasunagatik edo sarritan erabiltzen ez dena da. Baina aurtongo Txapelketan sei aldiz entzun dugu: Kartzela gaia kantatzeko erabili zuten Altunak Tolosa eta agurreko bertsoak jartzeko Telleriak Hernanin, Muruak Lesakan eta Azkoitian, Tapiak Hendaian eta Otañok Zornotzan:




4. 1980.ko Txapelketan bertso molde hartua izan zen "Esne saltzailearena" eta asko erabiltzen den bertso eta doinu da.


Hamaika lerro dituzte bertsoak eta sei puntu, eta hamarretxo txikiaren silabak dituzte lerroak, bigarrena han bezala eta hirugarrena sei silabadunak direlarik. "Bertsotan" liburuan ematen zaigu doinu hau eta azken Txapelketan bietan erabili zen (A-67, 27; A-141, 31). Aurtongo Txapelketan azken agurrak kantatzeko erabili zuten Otañok Tolosan, Etxebarriak Hendaian eta Arginarena J. Migelek Aramaion:



5. Euskalerriaren zehar beste doinu ezagutu bat "Bautista Basterrere" rena dugu. Hamarretxo txikia bezala hamar lerrodena da, bina hirugarrena eta laugarrena, eta zortzigarrena eta bederatzigarrena zazpi silabadunak dira. Agurrak kantatzeko erabili zuten Arginarena J. Ferminek Tolosan eta Mendizabalek Markinan:



6. Eta gaurko bilduma bukatzeko, hara nolako doinu ederra kantatu zuen Altunak Azkoitian kartzela gaia erabiltzeko.



José Antonio ARANA MARTIJA

En los cinco artículos precedentes he dado luz las melodías que utilizan los bertsolaris para cantar estrofas normales, es decir, los zortzicos menor y mayor, y los hamarretxo menor y mayor. Pero cuando los bertsolaris cantan que improvisan solos, sin acompañamiento, o con un acompañamiento de guitarra, o con un acompañamiento de acordeón, o con otro compañero, suelen cantar los bertsoak o estrofas de estructura más compleja. Así, por ejemplo, al cantar los bertsoak iniciales o finales del encierro, suelen cantar estrofas más largas y algo sofisticadas en cuanto a la medida se refiere.

Doi hasi berriak de estas melodías especiales que no se oyen con tanta frecuencia debido a la dificultad que encierra improvisar sobre esta factura. Las cinco primeras son conocidas no sólo en el campo popular, como puede verse hasta en la canción popular. La primera que aparece en las melodías de los bertsoak es la "Bautista Basterrere". La primera que aparece en el mundo normal y diario de los bertsoak desde que fue cantada por Fernando Arginarena (1760-1823). Por fin doy en último lugar la bella melodia que utilizó Altunak para cantar el tema impuesto en Azcoitia.

Quedan todavía algunas melodías de estrofas especiales ya que han sido muy raras en las fases del Campeonato de este año. Ello responde a la riqueza melódica del bertsolarismo y al empeño que han puesto los bertsolaris en esta primera fase para sacar al público melódico de nuestro acervo musical.